

# KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2008ko urriaren 3a / 246. zenbakia / 19. urtea

- **HERRIKO KONTUAK** **Muntoko lanak** 05
- **KIROLA** **Idoia Etxeberria** 10
- **AIAKO BERRI** **Sagardotarako Sagar erakusketa** 10
- **IRITZIA** **Igon Lertxundi** 18
- **MOILA BAZTERRETIK** **Jokin Salsamendi** 19
- **HERRITARRA** **Zouridine Mouhamed Thior** 25



## Orioko Gazte Festak gaztetxe atarian

1. Gazte Festak izan ziren irailaren 26tik 28ra. Parte hartze handiko jaiak izan dira eta gazteek primera pasa zuten.



**ZATOZ  
BERTSO  
ESKOLARA!**

Bertsotan ikasi nahi?  
Hasi hai!

10 urtetik gorako haur eta gaztetxoentzat  
Urritik ekainera  
Ordu eta erdiko saioa, astean behin  
Irteerak, topaketak, bertso udalekuak  
Matrikula: 50 euro (urte osokoa)

**ERRIKOTXIA**  
Oriko bertsozaleen kultur elkarte

Izena emateko fitxa bete eta kultur etxera eraman behar da urriaren 10a baino lehen



**LANGILEAK BEHAR DITUGU**  
*Orion eta Aian*

**STEKO ERREDAKZIO LANETAN BEREHALA HASTEKO ERREDAKZIO**

Informazio gehiago jasotzeko:  
943 83 15 27 edo [karkara@karkara.com](mailto:karkara@karkara.com)



**Gure  
Txoko**  
Antzara Kalea



**Goizeko  
KAFETEGIA**

☎ 943 83 28 55

Aita Leizaola, 33 behean - ORIO  
Autobus parada ondoan



**KOLON TXIKI**  
kafetegia  
logelak

Herriko Enparantza, 4  
ORIO  
Tel. 943 83 00 44



**jaretxea**  
logelak  
gazteategi

Elkano auzoa  
943 13 16 06

# KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

**Kultur Etxea**  
20810 ORIO  
943 83 15 27  
karkara@karkara.com  
www.karkara.com

**Editorea**

KARKARA taldea kultur elkarte

**Zuzendaria**

Ana G. de Txabarri

**Erredakzio burua**

Lore Berasaluze

**Erredakzio taldea**Pat Cowie, Miren Etxebarria,  
Ana Iturain eta Jabier Zabaleta**Aiako erredakzioa**

Eli Lasa eta Pat Cowie

**Publizitatea**

Pat Cowie

**Publizitatearen diseinua**

Patxi Uranga

**Testuen zuzenketa**Miren Etxebarria eta  
Jabier Zabaleta**Ale honetako laguntzaileak**Iñaki Gurrutxaga, Maider Lasa eta  
Igon Lertxundi**Diseinua**

KARKARA taldea eta Goio Arana

**Banatzzaileak**Josu Lizarralde eta  
Itziar Aiestaran (Orio)  
Iruñe Aldai (Aia)**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)

**Lege gordailua** SS-346/90**ISSN** 1132-1105**Tirada** 3.100 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen edota  
iritzien erantzukizunik.

KARKARAn argitaratutakoa berreman  
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta  
iturria aipatzen bada.

# Gaztetxe mugimenduari

IÑAKI GURRUTXAGA

**1**

Ahots kritiko ugari dago gure Orio berrian: herria bera ahaztu al zaigu turisten joan-etorrian? Herrigintza da behar duguna, bakoitzak bere neurrian, gaurgaztetxe bateskatzen dugu gazteenen aldarrian, pentsatzeko 're espaziorik eskaintzen ez den herrian.

**2**

Irudi ona iruditzen zait sarri artaldearena, herri osoak egin dezala batek esaten duena! Baina ardiak nazkatu dira eta aldatu da dena: gaztetxearen aldekoa da herritargorik gehiena, halare nola egin aurrera artzaina bada problema?

**3**

Nahizeta oraingazte-txartelak ez naun izendatzen gazte, gaztetxe baten alde jartzea ez da hainbeste kontraste. OKK-koei animo, eutsi eta ekin astez aste, pieza oso izan zaitzeten, ta ez inoren enpaste, burujabe ta kontsekuente: hitz bakar batean, aske.

**PUBLIZITATE PREZIOAK****IRAGARKIA ALERO JARRITA**

Modulu bat .....	12,00 €
Bi modulu .....	24,00 €
Hiru modulu .....	36,00 €
Lau modulu .....	48,00 €
Sei modulu .....	72,00 €
Zortzi modulu .....	96,00 €
Orrialde erdia .....	120,00 €
Orrialde osoa .....	204,00 €

**IRAGARKIA BEHIN JARRITA**

Modulu bat .....	16,00 €
Bi modulu .....	31,00 €
Hiru modulu .....	47,00 €
Lau modulu .....	64,00 €
Sei modulu .....	95,00 €
Zortzi modulu .....	127,00 €
Orrialde erdia .....	174,00 €
Orrialde osoa .....	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com  
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

**LAGUNTZAILEAK**

Euzko Jaurlaritzak

**Kultura Sailak**  
diruz lagundutako  
hedabidea

## Merkataritza gune handiak

Merkataritza gune handiek hirigintza berri bat sortu dute, gure beharrek eta usadioekin zerikusirik ez duena, eta, horren ondorioz, basamortu bihurtzen ari dira gure herri eta auzoak.

Azalera handiek prezio baxuko produktu batzuk erabiltzen dituzte amutzat; baina kontsumitzaileen bulegoek esana daukate, azken batean, azalera handi horiek direla gure erosketa saskiaren prezioa igoarazten dutenak. Egoera askoz okerragoa izango da, hala ere, kompetentziaren ondorioz denda txikiak desagertzen direnean. Betiko dendek inguruko baserri eta enpresa txikien produktuak saltzen dituzte eta, ixten badira, handitu egingo da langabetuen kopurua; denda horietan, bestalde, lanpostu finkoak daude eta azalera handietan, berriz, denboraldikoak dira gehien-gehienak; paradoxikoa da: administrazio publikoek, garantia sozialen alorrean daukaten erantzukizunari muzin eginez, milioitako laguntzak bideratzen dituzte azalera handientzat.

Iraultasuna, ekologia, kontsumo arduratsua, Agenda 21... administrazioak hitze-

tik hortzera erabiltzen ditu kontzeptu horiek; baina, gero, horrek guztiak ez du ezertarako balio eta Orioko Udalak, Eroskiri bidea erraztuz, engainatu egin nahi gaitu, eta konpetitibitate hitza erabiltzen du, multinazional baten negozio inmobiliario bat baizik ez dena zuzitzeko. Udalari ondo iruditzen zaio Eroski Orion sartzea, enpleguak galtzea eta gure komertzioaren kalitatea eskatea.

Nire gutun hau osatzeko, bi proposamen egiten ditut:

1.- 300 aparkaleku sortzea Baxoaldeko haur parkearen azpian.

2.- Industrialde bat sustatzea, behingoz, herriarentzat aberastasuna sortuko duena eta Oriori bizitasuna ekarriko diona etorkizuna ziurtatuz. Orioko komertzioak paper ekonomiko eta sozial garrantzizkoa jokatu du. Denda ixten badira, herri osoak galduko du eta ez bakarrik dendariak.

KUKUARRI

## Zatoz bertso eskolara

Bertsolaritza, hemen hain ohi-turazko duguna, eta batzuei hain erakargarri zaiguna. Zeu ere bertsozalea bazara, ez galdu aukera hau, mundu inte-

resgarri eta algaraz betetako honetan sartzeko.

Lehen bazen Orion bertso eskola bat, Esoainek eta gidatuta. Haren ikasle izandakoa naiz ni 2001etik 2007ra, eta hala sentitzen naiz oraindik. Bertsoaren usadioari bizirik eusteaz gain, astean ordubetez, ondo pasatzen genuen elkarrekin.

Beraz, gutun honen bidez, zera nahi diet esan Aiako eta Orioko ume zein gazteei, bertsoan aritu nahiez gero, orain-txe duzue aukera. Parte hartzera gonbidatzen zaituztet; eskertuko didazue. Ondo pasa.

IMANOL ZINKUNEGI

## Euskal dantzen ikastaroa

Fandango, arin-arina, mutxi-koak, Larrain dantza... ikasteko aukera eskaini nahi diegu 18 urtetik gorako herritar animoso guztiei. Urriaren 1ean hasi eta asteazkenero, iluntzean, 21:00etan Kosta tailerrean izango gara.

TALAI-MENDI DANTZA ESKOLA

## Isuna Orion

Izugarri gustatzen zait herri txiki hau; batez ere, hondar-

tza ingurua eta bertako pase-alekuak. Abuztuaren 28an inguru hartan aparkatu nuen 19:00ak aldera. Gure aitaren bihotzeko arazoetan pentsatzen ari nintzen, kezkatuta, eta ahaztu egin zitzaidan aparkatzeko txartela jartzea autoari (txartelaren gutxieneko denbora ordubetea da eta horrek 0,85 euro balio du).

Paseatu, itsasoari begira egon, zertxobait afaldu eta autora joan nintzen bueltan. Hantxe neukan isuna. *Donostian bezala izango da*, pentsatu nuen, *12 euro inguru eta tira*. Handik egun batzuetara jakinarazpena jaso nuen, udaltzainburuak sinatuta: 90 euro! Zorionez, ez daukat eskarmentu handirik horren denbora epe laburreratik jarritako isunetan; baina esango nuke isun arina beharko lukeela, infrakzioaren tamainakoa. Ba, ez; 0,85 euro ez ordaintzeagatik, badaezpada *pasara* eman didate. Udalarentzat %10.000ko onura da, gutxi gorabehera.

Jose Carrera udaltzainburuari aitortu behar zaio Orioko Udalaren diru bilketa sendotzearen alde egiten duen ahalegin eskerga. Seguru nago Wall Street-eko begiratzaleek berehala fitxatuko dutela; ez Botin, ez March eta ez Solbes iristen zaizkio txonkatiletara. Ale, agur!

HENRY SARASUA BROWN

Faroeko bakailaoa daukagu

**ITSAS MENDI**

gutzizak

Eroski Gertak, 5 Tel. 943 28 87 74 Ori

**HAIZE BERRI**

lehena-jateko-kafetago

Plater konbinatuak, bakatak, hamburguak, raziolak, eguneko menuak...

eta etxera eramateko sarbitzua!

Ordo bulegua, Eroski 1 943 81 92 Eroski plaza 8/9

**ARISTERRAZU**

jateketa

Andatza auzoa AIA

Tel. 943 83 45 21

THE ACADEMY OF ENGLISH

**A&E**

**PERTS ANAK**

A K O M A Z

Aluminio, PVC, Venezianak, Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

**Dorronoro Denda**

1961etik zure etxean

**AUKERA HANDIAGOA FRUTATEGIAN**

Tel. 943 83 09 37

**A&E**

The Academy of English

Justo kalea 3, Zarautz | Ibañondo pl. 8 Ori

Tel. 943 00 42 44  
943 83 51 91

MUNTOKO LANEK AURRERA EGINEZ GERO, URAREKIN ARAZOAK SORTUKO DIRELA DIOTE

# Muntoko lanen egokitasuna zalantzan jarri du Arkupek

**Muntoko azterketa hidraulikoa onartzen bada eta obra planeatuta bezala egiten bada, klima aldaketaren eraginez, leku hori dena ur azpian geratu litekeela gogorarazi dio Arkupek Jaurlaritzari.**

Arkupe elkarteak irailaren 11n Uren Departamentuko arduradunekin bilera izan zuen. Jakina denez, Arkupeko kideak kezkatuta daude oso Muntoko merkataritza guneak herrian izango duen eraginagatik eta ez dute oso argi ikusten lekua aproposa denik han doan etxe multzoa eraikitzeke, urak erraz hartuko duela uste baitute. Aipatutako bileran horretan jakin zuten Muntoko azterketa hidraulikoari onarpena emango diola Esther Larrañaga Jaurlaritzako Ingurumen sailburuak. Erabaki horrek sorpresaz hartu dituela aitortu du Arkupek: *Gure herrian egindako bidegabekeriak prentsan kritikatuta eta ekainean gurekin izandako bileran iritzi horiek berretsi ondoren, ez dugu ulertzen nola hartu duen Larrañagak horrelako erabakia.*

## HISTORIA

Eraikitzaileek egindako Muntoko azterketa hidroklogoa plazaratu zenean, Arkupek ingeniariitza enpresa bati agindu zion horren balorazioa egitea. Eremu horrek ur azpian geratzeko arriskua zuela azaldu zen bertan: *Bi arrazoigatik hartu dezake urak toki hori: bata, klima aldaketaren eraginagatik, eta, bestea, uraren bidea itxiz gero hor, putzuak sortzen direlako eta betelanak egitea debekatuta dagoelako horrelakoetan.*

Emaitzak eskuartean zituztela, Muntoko plana atze-



Arkuperen ustez, Muntoko lurak ur azpian gera litezke.

KARKARA

ra botarazteko ahaleginak egin zituen Arkupek.

## KEZKA HANDIA

Orain jakin dutenean Esther

Larrañagak zuzentzen duen sailaren erabakia zein izango den, kezkatuta agertzen dira; besteak beste, erabaki horrek klima aldaketari buruz Eusko

Jaurlaritzak berak dituen irizpideak zalantzan jartzen dituelako: *Hainbat azterketa hidroklogotan izandako emaitzen ondorioz, ur azpian geratzeko arriskuan duten eremuak zabaldu egin dira EAEn —Zorrozaurre, kasu—; Orion, aldiz, justu kontrakoa egin da, klima aldaketaren eraginak kontuan hartu ez direlako. Gainera, 10etik 500 urtera igo dute ur azpian geratzeko arriskuaren epea.*

Jon Redondo alkateak uste du, Eusko Jaurlaritzak Muntoko planari baiezkua eman badio, ur azpian geratzeko arriskurik ez dagoelako izan dela eta honako hau ere gehitu du: Arkupek Euskal Herriko Auzitegi Nagusira ere jo zuela Muntoko lanak geratzeko asmoz, eta hark ere Udalari eman diola arrazoia.

## Urak hartzeko arriskua

Telebistan noiznahi ikusten ditugu uholdeen albisteak: gainezka egindako ibaiak, urak hartutako inguruak, izugarritzko kalteak etxe, ibilgailu eta ondasunetan... eta baita hildakoak ere, batzuetan. Zergatik? Besteak beste, urak hartzeko arriskua duten inguruetan etxeak eraikitzeagatik. Zerk du herritarren segurtasuna baino indar gehiago gure kargu publikoentzat? Hauteskundeak hurreritzen direnean, botoa eskatuko digute? Uste dugu gure agintariei ahaztu egiten zaiela naturak ez dakiela erabaki politikoez eta diruaz.

Gaiari buruz gehiago jakiteko:

<http://tinyurl.com/3sy2v8>.

ARKUPE | ORIOKO DENDARIEN ELKARTEA

EPAIA IRITSI AURRETIK, EAE-RI DIRU ASIGNAZIOA KENDU DIO ORIOKO UDALAK

# EAJk ilegalizazioa baimendu duela dio Ezker Abertzaleak

**Abertzaleen ustez, EAJk nahikoa dela esango balu, eta ez hitzekin bakarrik, Madrilgo Gobernuak ez luke Alderdien Legea erabiliko.**

Ezker Abertzaleak EAE-ANV alderdiaren ilegalizazioa baimendu izana leporatzen dio Eusko Alderdi Jeltzaleari. Karmele Belaskok eta Antxon Gomezek, Orioko eta Aiako Ezker Abertzaleko udal talde-etako zinegotziek uste dute EAJk EAEren ilegalizazioa bere onurarako erabiliko duela: *Oposizioa gaineratik kentzeko, berenak ez diren karguez jabetzeko, boterea beren eskuetan edukitzeko, inolako kontrolik gabe aritzeko baliatuko dute.*

Bi zinegotziek aurreko legealdiko egoera errepikatuko den kezka dute: *Orion eta Aian EAJri aurre egingo dion bakarria da Ezker Abertzalea. Hori paretik kenduz gero, herritarrak ahotsik gabegertuko dira eta jeltzaleek nahi dutena egiteko ateak zabalik izango dituzte.*

**DIRU ASIGNAZIOA KENDUTA** Belaskok adierazi duenez, ekainaz geroztik EAE alderdiak ez du dagokion dirurik jasotzen, Orioko Udalaren partetik: *Auzitegi Gorenak alderdia legez kanpo uzteko autoa kaleratu aurretik utzi gaitu joko kanpo EAJk, guri ezertxo ere esan gabe.* Ezker abertzaleko ordezkariaren hitzetan, alkateari eta udal idazkariari asig-



Karmele Belasko eta Antxon Gomez.

KARKARA

**“Auzitegi Gorenak alderdia legez kanpo uzteko autoa kaleratu aurretik utzi gaitu joko kanpo EAJk”  
—Karmele Belasko**

nazio hori kentzeari buruz galdetu zitetenean, EUDEL-en irizpideak jarraitu zituztela erantzun zieten.

Bestalde, gaineratu du ilegalizazioa tratatzeko ezohiko udalbatzarraren eskaera egina dutela eta erantzunaren zain daudela.

**HEMENDIK AURRERAKOA** Udaletako zinegotziekin edo zer gauza gerta litekeela uste dute Belaskok eta Gomezek: *Orain arte kargu politikoak konsubstantzialak ziren, pertsonari zegozkion, ez siglari, baina legeak komenientziaren arabera aldatzen dituztenez, batek daki zer pasako den.*

## LABUR

### ARGAZKIGINTZA Lehiaketa

Muskuilu Harria elkarteak argazki lehiaketa antolatu du, itsas paisajeak eta kirol arrantza gaitzat hartuta. Sarikolatik barrara eta Mollarritik Berdainera bitarteko eremuan eginak izan behar dute argazkiek eta inoiz argitaratu gabek. Gutxienez, 20 cm x 30 cm tamainan aurkeztu beharko dira lanak eta Orioko 71. posta kutzara bidali, urriaren 31 baino lehen.

### ONTZIGINTZA Uretan da Peronaren ontzia

Lehen aldiz neskek erabili bazuten ere uztailean, irailaren 23an uretaratu zuten Orioko traineruko gizonezkoek, ofizialki. Arratsaldeko 20:00etan ureratu zuten *Ilar azala* izena duen ontzia eta bueltan gustura omen ziren Aizperroren mutilak Martin Peronaren txaluparekin.

### BABES LEKUA Altzuzara

Orioko Zaharren Babes Lekuak Altzuzara (Nafarroa) bidaiari antolatu du, Jorge Oteizaren museoa ikusteko. Urriaren 22an izango da txangoa eta 25 euro balioko du. Interesatuek 14an eman beharko dute izena (16:30-18:30).

**AHOLKULARITZA**  
Fiscal, laboral, kontable

**Eugenio Garmendia**

ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1  
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

**AUTOAK AUKERA ONEAN**

**AIA ORIO**

Telefona: 943 13 04 38

**ITZIAR**

Kirolak

Tel. 943 83 31 03

Ille gaztegia

**MARIJO**

Neska eta mutilentzako

Eusko Gudari, 8 - bajo  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

BI IKASTETXEETAKO HIRUNA IRAKASLEK OTEIZAREN LANEN BERRI JASO ZUTEN, GERO HAURREI IRAKASTEKO

# Oteizaren jaiotzaren mendeurrena prestatzen

**Jorge Oteiza Orion jaio zela 100 urte beteko dira urrian eta mendeurren hori ospatzeko zenbait ekimen antolatu ditu Udalak.**

Kultura Batzordea ari da egitasmoa osatu eta martxan jaritzen eta ekimen batzuk dagoeneko abian dira. Irailaren 23an herriko bi ikastetxeetako hiruna irakaslek ikastaro berezi bat egin zuten kultur etxean, 15:00etatik 18:00etara: eskulanak eta irudimena lantzen dituen *Ikertze* elkarreak antolatuta, Oteizaren lanen berri jaso zuten, gero ikastetxe bakoitzeko ehuna haurri erakusteko. Besteak beste, eskultorearen klarion lanak, kuboideak eta irudiak landu zituzten.

Irakasleak bitartekari gisa erabiliz, Oteiza haurrengana eramateko bide egokia izango dela adierazi du Nerea Orbañanos kultur teknikariak. Ikastaroa jaso zuen ikastolako Amaia Iribar irakaslearen ustez Oteizari buruzko galderak egin eta hausnarketak egiteko gune aproposa izan da. Zaraguetako Marije Azkue bat etorri dira ikasleei erakusteko lehendik zekitena eta Ikertzek erakutsitakoa uztartuko dituztela aipatzean eta klarionena eta hizkiarena, esaterako, lan oso aproposak direla haurretzat, gehitu du.

Haurrek ikasitakoa plaza-



Eskultorearen klarion lanak, kuboideak eta irudiak landu zituzten eskolako eta ikastolako irakasleek.

IKERTZE

ratzeko erakusketa egingo da urriaren 21etik 29ra eta, ikasleen lanez gain, Oteizaren pieza batzuk ere hartuko ditu erakusketak.

## EGITARAUA

Urriaren 21a izango da Udalak prestatutako egitarauaren egun nagusia, horrelako egun batean jaio baitzen, duela 100 urte, Jorge Oteiza. Aurrez aipatutako erakusketaz gain, ekitaldi berezia izango da elizako zimitarioan eta, artistaren irudiak pantailan ageri diren bitartean, olerki errezitaldia eta *Egunsenti* otzotzearen ema-

naldi berezia izango dira, besteak beste. Oroigarriak ere jarriko dira zimitorioko arrotan eta ohorezko aureskua dantzatuko dute dantzariak.

Hilaren 22an Oteiza Arantzazuko apostoluak egiten ari zeneko bizipenak izango ditu hizpide Pello Zabalak kultur etxean emango duen hitzaldian. Ander Lipusek, bestalde, Oteizaren inguruko monologoa antzeztuko du 23an, leku berean.

Oraindik eguna zehazteko badago ere, Bilboko txistu bandak ere kontzertua eskainiko du asteburu horretan.

**Hilaren 21a izango da egun nagusia, horrelako egun batean jaio baitzen Orion, duela 100 urte, Jorge Oteiza eskultorea**

Urriaren 29tik azaroaren 26ra bitartean, berriz, Foru Aldundiaren *Oteiza erakusketa*. Bizirako proiektua jarriko da kultur etxean.

**ACTIVA Akobe**  
ELEKTRAGAILUAK ETA SUKALDEKO ALTZARIAK  
Juan Albizu  
Abeslari: 6 - Tel/fax: 943 83 12 49  
943 83 12 49

**Alustiza Autobusak**  
Alustiza Bidalak S.L.  
Autobus litera eta 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.  
Tel: 943 13 28 93 / 83 08 80. Mungikorra: 656 78 30 01 - 656 78 29 99



Iñaki Agirre oholarekin 360ko bira egiten ari den bitartean.

KARKARA

18 URTEZ AZPIKOEN ARTEAN 2. IZAN ZEN TXAPELKETAKO NESKA BAKARRA

## Gesalaga eta Agirre surf txapelketako irabazle

Irailaren 20an eta 21ean jokatu zen Orioko surf txapelketan 47 surflari izan ziren —tartean emakumezko bakarra— olatuen gainean beren abilezia erakutsiz.

Liber Gesalagak —18 urtez azpikoen artean— eta Iñaki Agirrek jantzi zituzten aurtengo Orioko surf txapelketako txapelak, denen artean onenak izan zirelako. Aipatzekoa izan zen Ruth Aramendik egindako lan aparta,

18 urtez azpikoen artean, bigarren izatea lortu baitzuen txapelketako emakumezko bakarra.

**TALDEKA ETA OHOL LUZEAN**  
Bi kategoria estreinatu zituen txapelketak: *longboard* eta taldekakoa. Dozena bat lagun aritu ziren surfeko ohol handiarekin eta Mikel Agote izan zen trebeena.

Taldekako lehiari, berriz, bost surflariz osatutako lau talde egin ziren eta Joseba Erguinek, Gorka Garciak, Iñigo Gai-

tonek, Luis Duranek eta Iker Garmendiak osatutako boskotea izan zen irabazle. Balea hotelean afaria eta talaso zirkuitua izan zen jaso zuten sari ederra.

Parte hartzaile guztien artean zozketatutako sari bereziak ere izan ziren: Pukaseko ohola eta surfean aritzeko negurako bijantzi. Gainera, surf taldean nekatu gabeko laguntza eskaintzen aritzen den Aitor Jakari aparteko saria ere eman zion Orioko Surf Elkarteak.

### LABUR

#### ATLETISMOA

## Behobia-Donostia

Urtero bezala, Karela kiroldegiak autobusa jarriko du Behobia-Donostia lasterketa egin nahi duten kirolarientzat. Autobus bakarra jarriko da, beraz, lehenbailehen izena ematea komeni dela gogorazi dute antolatzaileek. Interesatuak kiroldegira jo behar dute.

#### SASKIBALOIA

## Bruesa ikustera

Zarauzko Saskibaloia Kluba Bruesa Gipuzkoa Basket taldearen etxeko partidak ikustera joateko autobusa antolatu du denboraldi honetarako. Aian eta Orion ere egingo ditu jendea jasotzeko geldialdiak. Interesa dutenek Zarautz Kirol Elkarte egoitzatik —kale Nagusia 7, 1.— pasa beharko dute izena emateko. Informazio gehiago jasotzeko, berriz, 943 83 14 63 telefono zenbakira deitu edo [www.inurris.com](http://www.inurris.com) atarira jo beharko dute.

#### PLAIEROAK

## Arbitro eske

Xixario neska taldeak, 30 euroren truke, Zarauzko plaieroetan aritzeko arbitro behar du denboraldi honetarako. Interesatuak 678 31 47 18 (Josune) zenbakira dei dezakete.

**ALTXERRI**  
Karta eraberrina  
Asteburuan, eguerdi eta iguetan,  
menu bereziak  
943 83 07 62

**ERROTA**  
- Eztei ospakizunak  
- Banketeak  
- Karta zabala  
- Egunko menua (lanegunetan)  
- Oheak  
Tfnoa: 943 83 54 65



IDOIA ETXEBERRIA | HARRI-JASOTZAILEA

# “Gustura nago, baina hobeto egin nezakeen”

Idoia Etxeberria Aizarnazabalgo frontoian aritu zen harri jasotzen, etxetik kanpo lehen aldiz. Joseinazio Saizarrekin eta Joseba Ostolazarekin batera egin zuen saioa igandean, 18:00etatik aurrera.

## Zer egiten du Idoiak Aizarnazabalen harri jasotzen?

Erakustaldi baterako, harria jasotzeko jendea behar zuten. Hasiera batean Miren Urkiolari eta M. Jose Sardoni deitu zieten, baina haiek ezin zutelara eta, lagun baten faltan geratu ziren. Joseinaziok nire berri eman zien orduan antolatzaileei eta... hara! Aizarnazabalen amaitu nuen.

## Zer moduz moldatu zinen?

Ondo esan beharko dut. Nahikoa urduri nengoen eta asko berotu beharrik ere ez nuen izan, izerdia botatzen hasteko. Izan ere, etxetik kanpo egindako lehen erakustaldia izan zen eta jendea barra-barra zegoen begira. Harri-jasotzaileon saioaren atzetik Euskal Herriko trontza txapelketa zetorren eta ikusle dezente erakarri zuen horrek ere.

## Nolako saioa egin zenuen?

Joseinazio Saizar Luxarberekin batera aritu nintzen ni. Txandaka altxa genituen harriak. 75kg-ko koparekin,



Erakustaldiaren aurretik gogor entrenatu du Idoiak 75 kg-ko harriarekin. KARKARA

buelta bakoitzean, Joseinaziok 7 jasoaldi eta nik 3 egiten nituen. Azken hamar jasoaldietan, ordea, bosna egin genituen. Guztira, beraz, 40 bider altxa genuen harria eta sorbalda gainean berdindu.

Gero, 65 kg-ko bolarekin 12 altxaldi egin genituen; nik 1 eta Joseinaziok 3, bueltako. Hamabi altxaldietara iritsi ginenean, entrenatzaileak beste hiru jasotzeko agindu zion Joseinaziori eta 15era iritsita amaitu zen gure proba.

Gustura bukatu nuen; baina, beti bezala, hobeto egin nezakeelakoan nago. Altxaldiren bat edo beste aldrebestu zitzaidan, baina entrenatzaileak, Pello Saizar Luxarbek, ondo egin nuela esan zidan eta horretan utziko dugu.

## Ba al da gerriko minik?

Kargatuta daukat, bai. Bada pare bat aste gerrialdea minduta daukadala. Fisioterapeutarekin lanean jardun naiz eta Aizarnazabalgo pla-

**Gerri aldeko korapiloa askatu bezain pronto, jo eta ke, gogor hasi beharra daukat entrenatzen**

zako saioa ondo egiteko esperantza nuen, baina kopako harriarekin minberatu egin zitzaidan. Bolarekin, ordea, ez nuen hainbeste sumatu, tentsioan nengoelako edo. Bukatutakoan, lasaitutakoan, etorri ziren molestiak berriz.

## Beste saiorik ba al duzu laster?

Urriaren 11n Lekunberrin izango naiz, Euskal Herriko nesken txapelketan. Emakumezkoen festa izango da: aizkoran, trontzan, harria jasotzen... arituko gara. Horra ere joan beharko dugu bada!

## Ordurako sendatuta izango al zara, ba?

Orain xuabe altxatzen hasiko naiz, minarekin ez da gustura jarduten eta. Gerri aldeko korapiloa askatu bezain pronto, jo eta ke hasi beharra daukat entrenatzen. Prestatzeko denbora askorik ez daukadala badakit, baina saiatu gabe ez dut etsiko, lana txukun egiteko.

**RAMIRO**  
argazkiak

www.fotaramiro.com  
fotaramiro@fotaramiro.com

610 69 76 68  
943 83 10 48

elbaritegi  
**ANTILLA**  
jateetxea

MUSATI KARRA 2 - TEL. 914 96 20 00

**Gabon**  
TABERNA

plater, kokotxak, pintxoak

Tfnua: 943 83 06 09



Sagar mota ugari produzitzen da Euskal Herrian, eta erakusketan horietako asko ikusteko aukera izango da.

KARKARA

BI EGUNETAN SAGAR MOTA ASKO IKUSTEKO ETA DASTATZEKO AUKERA IZANGO DA

# Sagardotarako Sagarren erakusketa Iturraranen

**Asteburu honetan Sagardotarako Sagarren erakusketa antolatu da Pagoeta Parke Naturalean lehendabiziko aldiz. Sagar barietate asko egongo dira ikusgai eta aztergai, eta dastazeko aukera ere izango da.**

Euskal Herriko, Asturiasko eta Frantziako 49 sagar barietate bildu ditu Foru Aldundiak Sagardotarako Sagarren erakusketarako: 16 Gipuzkoakoak dira, bertakoak; 7, Bizkaiakoak; 20, Asturiaskoak; eta 6, Frantziakoak. Iñaki Larrañaga Foru Aldundiko teknikariak esan digu Pagoeta Parkeko Ibarrola Goikoa eta Orbelaun baserrietan eta Hondarribian Aldundiak dituen sagarrondo

mintegietan egiten den lana ezagutarazteko antolatu dutela erakusketa. Mintegi horien helburua fruta arbolen ezarpena sustatzea da, sagarrondo landaketak bereziki, daudden barietateak hobetuz eta sagardoaren kalitatea hobetzen lagunduz.

## LEHENDABIZIKO ALDIZ

Larrañagak honako hau esan digu: *Normalean sagarrondoak edo sagardotegiak daudden lekuetan antolatzen dituzte horrelako erakusketak eta uzten dizkiegu sagarrak, baina hau da aurreneko aldia Foru Aldundiak berak antolatu duela. Batetik, erabaki digu gure produktua erakutsi behar dugula, askotan jendeak ez baita horrelakorik*

*egiten dugunik. Eta, bestetik, sagarra biltzeko garaia iritsi denez eta mintegiak parkean bertan ditugunez, parketxea leku oso egokia iruditu zaigu erakusketa egiteko.*

## FROGATU ETA PROBATU

Erakutsi bakarrik ez, hainbat froga egingo dituzte Foru Aldundiko teknikariek: refraktometroarekin sagarren azukre maila neurtuko dute; penetrometroarekin sagarren gogortasuna neurtuko dute eta sagarrak erditik jo eta iodotan busti ondoren, almidoiaren froga egingo dute sagarra heldua dagoen ala ez jakiteko.

Horrez gain, erakusketara hurbiltzen direnei sagar mota ugari dastatzeko aukera

emango zaie. *Sagar klase asko dago eta zapoaren arabera bereiz daitezke, —esan digu Larrañagak—. Helburu pedagogikoa ere izango dugu. Sagarren artean gaziak, garratzak eta gozoak bereizteko aukera eman nahi dugu, horrelako gauzak lagungarriak baitira mezua eta informazioa jendearengana iristarazteko.*

## NORENTZAT

Erakusketa irekia dela azpimarratu du Larrañagak: base-ritarrei, nekazal eskoletako ikasleei, sagardogileei eta natura interesatzen zaion edozeini dago zuzenduta.

Urriaren 4an eta 5ean izango da zabalik, 10:00etatik 14:00etara, eta sarrera doan izango da.

UDALAREN INGURUKO GAUZA ASKO AURKI DAITEZKE INTERNETEKO ATARIAN

# Martxan da dagoeneko aiako.com web orri berritua

**Web orri zaharberritua du Udalak: lehenengo helbidea aprobetxatuz, askoz ere webgune biziago eta erabilgarriagoa lantzen ari da.**

Orain dela urte batzuk sortu zen aiako.com webgunea, eta Aiari buruzko informazio estatikoa bakarrik ematen zuen; Udalakez zuen erabiltzen egiten ari diren gauzak zabalteko edota herritarrentzako informazio erabilgarria jartzeko.

Orain, berriz, Foru Aldundiak udal guztientzako sortutako formatu baten bidez, aiako.com helbide berberean gune biziagoa lantzen ari da Udala. Igor Iturain eta Joxe M. Aiertza aritu dira programarekin lanean eta, orain arte gehien landu diren atalak notiziak eta agenda izan dira. Helburu orokorrak aipatu dizkigu Aiertzak: *Zahartuta eta geldirik zegoen lehengoa, eta bestelakoa behar du instituzio baten orriak: eguneroko gauzak jarri edo kendu, plenoen berri eman, aktak jaso, deialdiak egin... jendeak ikus dezan.*

## JENDEAREN BEHARRAK

Bestalde, interaktiboagoa izatea nahi du Udalak. Adibidez, norbaitek agiri ofizial bat eskatzeko aukera izatea nahi du, eta espero du zerbitzu hori abendurako martxan egotea. Plano toponimikoa ere sartuko du udaberriarako, eta jen-



Eguneko informazioa eskainiko du aiako.com atariak.

KARKARA

## Webgune arinagoa da eta jendearen beharretara errazago egokituko da

deari aukera eman planoak jaisteko.

Orri berria arinagoa da, baina lehengo informazioa ere jasotzen du. Aiertzaren hitzetan: *Gaur, minimo bat dago egina, baina joango da zabaltean. Hala ere, atal gehienak beteta daude, nahiz eta batzuk (argazkiak, ekonomia*

*eta industriak, herriaren patrimonioa eta abar) landu behar diren oraindik.* Hizkuntzei dagokienez, euskaraz edota gaztelaniaz irakurtzeko aukera du eta loturak ditu herritarren interesekoak izan daitezkeen beste web orriekin. Kontadorea du programak eta horri esker Udalak jakingo du, adibidez, zein dokumentu eskatzen dituen jendeak gehien. Oraindik ez dago jakiterik zenbat erabiliko den orria, baina hori lotuta doa internetera konektatzeko aukera zabaltearekin. Aian, %70k baino gehiago du aukera hori, eta ez dutenen beharrik aztertzen ari da Udala.

## LABUR

### Epilepsia hizpide

Epilepsiari buruzko hitzaldia antolatu du Hitzez baserriko emakumeen elkarteak. Gipuzkoako erizainen hezkuntza taldeko bozemaile batek emango du kultur etxean urriaren 7an 15:30ean eta irekia izango da.

### Izeta ezinean

Izeta II.ak ezin izan zion Irigoienek jarritako erritmoari jarraitu Tolosan egindako harri-jasotze apustuan. Azkenean, zazpi jasoaldiko aldea aterazion gazteak beteranoari eta 20.000 euroak poltsikoratu zituen.

### Amilibia txapelkun

Nerea Amilibia korrikalariak Atxondoko I. Sorginen Lasterketa irabazi zuen irailaren 20an. 25.5 kilometro luze zen ibilbidea eta 1.400 metroko malda. Denera 150 kirolarik hartu zuten parte eta emakumeen artean lehia estua izan zen lasterketa osoan.

### Trikitixa

Nerea Lertxundik irabazi zuen Hernanin antolatutako Gazteen Trikitixa Txapelketa irailaren 20 eta 21ean. Anoetako Amaier Luluagarekin jo zituen eskatutako hiru piezak, eta beste bost bikoteak baino hobeto aritu ziren epaimahaiaren ustez.

Aian egin diren etxe berrietako batean bizi al zara?

**KARKARA JASO NAHI AL DUZU?**

Utz itzazu zure datuak Aiako kultur etxean eta doan jasoko duzu hemendik aurrera



## AIAKO LEIHOA

# Etorkinak gure artean

**O**rain dela gutxi, hiri handietan bakarrik ikusten genituen; baina, gaur egunean, etorkinez inguratuta bizi gara. Askotan pentsatu izan dut zein gogorra izan behar duen norberaren herrialdea utzi eta beste batera joan beharra bizimodu hobetzeko asmotan.

Jende ugari ezagutzen dut etorkinen aurka agertzen dena. Beren ustez, bertako jendeari lana kentzen omen diote; baina nik ez dut horrela pentsatzen.

Etorkinek guk nahi ez ditugun lanak egiten dituzte askotan. Gainera, zer eskubide daukagu guk etorkinen etorrera debekatzeko? Bizi garen herrialdea gurea izango balitz bezala jokatzeko dugu, eta horrek ez du inongo zentzurik. Munduan zehar bidaiatze

ko eskubidea baldin badugu, edozein tokitan gure bizimodua egiteko eskubidea izan beharko genuke.

Nik gauza bakarra eskatu nieke etorkinei: gure kultura eta ohiturak errespetatzea, besterik gabe. Gero, integrazten diren edo ez, hori beste kupeleko sagardoa da. Komenigarri izango balitz ere kanpotar horiek gure kulturari integraztea, inoiz ezingo

genizkieke inposatu gure tradizio eta usadioak; baina bai exijitu, behintzat, errespetatzea.

Batzuen ustez, arazo horren oinarria mugarik ez jartzean datza. Kanpotarren etorrerak muga bat izan beharko lukeela baieztatzen dute.

Nik beste proposamen hau defendatzen dut: herrialde aberatsenak azpigaratuta dau-

den herrialdeei lagundu beharko liekete era ezberdinetan. Adibidez, diru laguntzekin, baina baita bizi garen ekonomia orokor honetan *muturra* sartuz ere. Azpigaratutako herrialdeen ekonomia oinarrizko produktuek indartzen dutela kontuan izanda, horiei irtenbide bat ziurtatuz gero beste lurralde aberats horien merkatuetan, herrialde pobreenek ere aukera bat izango lukete baliabideak lortzeko eta, azken finean, garapena lortzeko.

Herrialde batek aurrera egiten duenean, bertako biztanleek ez dute kanpora irten beharrik.

Ez ahal genuke denok ere horixe nahiago?

MAIDER LASA

**Nik gauza bakarra eskatuko nieke etorkinei: gure kultura eta ohiturak errespetatzea, besterik gabe**

**Herrialde batek aurrera egiten duenean, bertakoek ez dute kanpora irten beharrik. Ez al genuke denok ere horixe nahiago?**

## TXOKOAK ETA JENDEA



## Martxan da ikasturte berria

Argazkian dituzu June, Estitxu, Leire eta Naiara Ainara Saizar irakaslearekin, kurtso bukaeran egin zuten agerraldian. Aurten ere musika ikasteko hainbat eta hainbat ikastaro antolatu dira, besteak beste, trikitixa, txalaparta, pianoa, panderoa, gitarra eta euskal dantza, eta oraindik tokia badago jende gehiagorentzat ikastaro horietako batzuetan. Horrez gain, heldu eta haurrentzako ingelesa eta aerobik ikastaroak ere izango dira. Anima zaitetzte!



# Gazte Festa arrakastatsua

TESTUA ETA ARGAZKIAK: LORE BERASALUZE

*OKK Gazte Asanbladak herriko zenbait talderen laguntzarekin antolatutako Orioko 1. Gazte Festak jende ugari bildu zuen irailaren azken asteburuan. Musika kontzertuak, kalejira, herri bazkaria, lagun arteko jolasak, argazki proiektzioa, haurrentzako jokoak... guztiarekin gozatu zuten elkartutako hainbat eta hainbat lagunek.*

*Gaztetxe bihurtzeko okupatzera zihoazen herriko eraikin batean egitekoak ziren jaiak; baina, Udaleko ordezkari gehienekin eta lokalaren jabearekin hitz egin ondoren, kalean egitea adostu zuten, gaztetxea egiteko hiruren arteko mahaia sortzeko konpromisoa hartu eta gero. Ikuskizunak, beraz, plazan eta moilan egin ziren egunez; gaueko musika emanaldiak eta afariak, berriz, Antillako parkera eraman zituzten, gazteek hala proposatuta, han bizilagunik ez zutelako molestatzeko.*

*Astebete pasa eta gero, balorazioa egiteko garaia iritsi zaie antolatzaileei eta hiru festa egunek eman dutenaz aritu gara solasean taldeko batzuekin.*

### Noiz jai zen Gazte Festak antolatzeko ideia zuen buruetan?

Gazteok askotan salatu izan dugu gure ekimenak aurrera eramateko behar dugun leku baten falta. Azken lau urtetan milaka aldiz jarri diogu arazoa Udalari mahaigainean eta ez diote sekula adarretatik heldu. Beraz, behingoz lanean hasteko garaia badela eta, aurrerapauso bat eman nahi izan dugu, arazoa erreala delako, gazteak kalean gaudelako eta gaztetxe autokudeatua behar dugulako.

Gazteek herriarentzako antolatutako festak egitea erabaki genuen orduan, Udalak egindako festetan ez baitugu sinesten. Herritarren parte hartzea bultzatzea eta gaztetxea eskuratzea izan da gure apustua. Gainera, iaz egindako Gazte Eguna motz geratu zen eta hiru eguneko jaiak egin nahi izan dugu oraingoan.

### Noiz hasi zineten prestaketekin?

Denbora luzea pasa dugu festak noiz egingo genituen erabakitzen. Hasiera batean, sandedroetan egin nahi izan genituen, baina egokia ez zela eta, bertan behera geratu zen asmoa. Behin irailean egingo genituela adostuta, hiruzpatalau hilabete pasa ditugu jaiak antolatzen.

Egia esan, festen motorra OKK Gazte Asanblada izan bada ere, herriko eragile askoren artean osatu ditugu festak: Txurrunuski, esaterako, jolasez arduratu da; Erriko txiak bertsolariak ekarri ditu; marmitakoa eta hamaiketakoa Kandidok, Emeteriok, Eduardok, Danik eta Milak prestatu zituzten... Inguruko herrietako gazte taldeek ere babesa eta laguntza eman digute. Azken finean, oso aberatsak dira guztion artean landutako jaiak. Bide batez, esker-rak eman nahi dizkiegu lagundu diguten guztiei.

### Antolaketan arazorik izan al duzue?

Gure asmoa herrian hutsik dagoen eraikin bat (*Etxeluzia*, Arin Enbilenekoek egurra

lehortzeko erabiltzen zutena) okupatzea zen, festak han egin eta behin-behineko gaztetxe bihurtzeko. Okupatzearekin batera, Udalarekin eta eraikinaren jabearekin harremanetan jartzekoak ginen; biei bidaltzekoak ginen gutuna ere prest geneukan. Festak amaitu bezain pronto gaztetxearen nondik norakoak negoziatzeko bilera baterako deia egitea zen gure asmoa.

Albistea gehiegi zabaldu zen herrian, ordea, eta ertzainen belarrietara ere iritsi zen. OKKko kide bati eta *Etxeluziaren* jabeari deitu zioten gure asmoen berri zutela adierazteko. Gauzak horrela, jabearengana jo genuen, gure intentzioen berri ematera. Hasieratik, prest agertu zen gurekin hitz egin eta ados jartzeko. Udalak ordainduko lukeen errenta dajartzen duen baldintza bakarra eta gu, gure aldetik, prest gaude zentzuzko alokairu bat ordaintzeko. Udala bitartekari soila izango litzateke.

### Zein izan da Udalaren jarrera?

Jaiak hasi baino ordu batzuk lehenago, urgentziatzeko biler bat egin genuen Udaleko 7 zinegotzirekin (EAJkoak falta ziren). Aldeko jarrera izan zuten eta ados jartzen bagara —errentako baldintzak: zenbat urtetarako, zenbat diru...— jabearen eta Udalaren arteko kontratu hori sinatzeko prest agertu ziren.

Bien bitartean, polizia operatiboa martxan jarrita zegoen eta gure asmoak bertan behera uzteko eskatu zituzten, guztiontzako egokiena izango zela eta. Nagusiaren jarrera ona baloratuz eta negoziaketak aurrera zihoazela ikusita, jaiak herriko kaleetara eramatea erabaki genuen. Eguneko ekintzak herrian —plaza inguruan, gehienbat— egin ditugu eta gauekoak, aldiz, Antillako parkean, errespetu osoz lasai egin nahi duen jendearentzat.

### Zer moduz joan dira, ba, jaiak?

Oso ondo, arrakastatsuak izan



dira. Gauza batzuk ez dira guk nahi bezain ondo atera; batez ere, azken momentuan, lekua inprobisatu behar izan dugulako; baina, orokorrean, oso kontentu gaude festek izan duten erantzunarekin.

Antolaketari buruz esan behar dugu gauzak ondo egin ten saiatzen ari garela, baina

oraindik asko daukagula ikasteko eta utokritika egin behar eta egingo dugula.

Antolatutako ekintzak baloratuz, jende ugari ibili da. Txupinazoan, adibidez, jende dezente bildu zen, azken momentuko egoerak sortutako urduritasuna medio pixka bat berandutu bazen ere.



KARKARA

Kontzertuek ere harrera ona izan dute, gazte asko izan da musika taldeak entzuten. *Triki ta Kek* jo ez izana da arantza bakarra. Izan ere, emaldia berandutu egin zen eta haien eta gure onerako, ez jotzea hobe zela erabaki genuen, taldeak berak aholkatuta; kontzertu hori gaz-

txearen inaugurazioan eman-go dutela esan ziguten. Eguneke beste ekintzek ere arrakasta izan dute, herri bazkariak—200 lagun elkartu ziren plazan, marmitakoa jateko— eta baltsa lasterketak,—moila ikuslez bet zen— batez ere. Irudiek erakus dezatela gainontzekoa.

## ZERGATIA

**“Lau urtetan milaka aldiz jarri diogu arazoa Udalari mahai gainean eta ez diote sekula adarretatik heldu. Beraz, behingoz lanean hasteko garaia badela eta, aurrerapauso bat eman nahi izan dugu, arazoa erreala delako, gazteak kalean gaudelako eta gaztetxe autokudeatua behar dugulako”**

## ANTOLAKUNTZA

**“Festen motorra OKK Gazte Asanblada izan bada ere, herriko eragile askoren artean osatu ditugu jaiak”**

## OKUPAZIOA

**“Gure asmoa hutsik dagoen eraikin bat —Etxeluzia— okupatzea zen, festak han egin eta behin-behineko gaztetxe bihurtzeko. Okupatzearekin batera, Udalarekin eta eraikinaren jabearekin harremanetan jartzekoak ginen”**

## NEGOZIAZIOA

**“Jaiak hasi baino ordu batzuk lehenago, urgentziatzeko bilera egin genuen Udaleko 7 zinegotzirekin —EAJkoak falta ziren— eta eraikinaren jabearekin. Aldeko jarrera izan zuten eta ados jartzen bagara jabearen eta Udalaren arteko kontratua sinatzeko prest agertu ziren”**

## ERANTZUNA

**“Eguneke ekintzek ere arrakasta izan dute, herri bazkariak —200 lagun elkartu ziren plazan marmitakoa jateko— eta baltsa lasterketak —moila ikuslez bete zen—, batez ere”**

## Festak bukatuta negoziaketan ari zarete orduan?

Bai, asteartean batzarra izan genuen udaleko bi ordezkariarekin eta *Etxeluziaren* jabearekin. Diru-adostasun batera iritsi ginen: errenta OKKren eta Udalaren artean ordainduko da. Gazte asanbladaren nahia gaztetxea autokudea-

tzea bada ere, diru irabazirik gabeko taldea da eta oraingoz ez dugu beste aukerarik.

Hala ere, udal ordezkariak eta gu ados gaude *Etxeluziak* behin-behinekoa izan behar duela. Gazteei benetako alternatiba bat eman beharzaie eta behin betiko lokal bat lortzeko lanean jarraitu behar dugu.

OKK GAZTE ASANBLADAREN  
ESKER ONA

Es Kerrak eman nahi dizkizuegu gazte festetan parte hartu eta herria girotzen lagundu diguzuen guztioi. Ekintzak egin ondoren gauzak jasotzen eta garbitzen egon zareten guztioi ere mila esker; eta, bereziki, ekintzak antolatzen lagundu diguzuenei: trikitilariiei, festen hasieran, kristoren giroa jarri zenutelako; Txurumuskiri, toke berezia eman zenietelako festei eta baliabide gutxirekin olinpiada dotoreak antolatu zenituztelako; Errikotxia bertso taldeari, bazkaldu ondoren, saio ederra eskaini zenutelako; Batukada taldeari, herriari bizitasun handia eman zenietelako zuen erritmoeekin: hori burrunbada Gabon tabernako tunelean; *Heldu!* taldeari, herri kiroletarako behar genuena uzteagatik; koadrilei, balsak egin eta ikuskizun zoragarria eskaintzeagatik; Emeteriori, Kandidori eta Edortari: ederra marmitakoa; Daniri eta Milari: zein ondo sartu zen hamaiketakoa!; musika taldeei: *Orio Konbakt Rock, I can't explain, Kenon, Darling Shoes, Aurka, DJ Illarras, Mahaster River* eta gure Mikel, zuen kantu eta erritmoez ez dute hutsik egin. Mila esker: Galon Txiki, Sarasua, Gabon, Unar, Kala Kari... tabernei zerbait behar genuenean hor egon zaretelako.

Bestalde, gure antolamendua dela eta zenbait ekintza antolatzea ez delako erraza izan eta horiek aurrera eramateko erotuta ibili diren guztiei barkamena eskatu nahi diegu.

Zuek gabe ez zen festarik egingo. Eskerrik asko eta zorionak bihotzez. Hasi prestatzen, gutxi falta da eta datorren urteko gazte festetarako. Irailean, berriz.







## ADARRETATIK HELDUTA

# Denboraldi berezia

**H**elduek denboraldia bukatu eta gaztetxoek berriari ekiten dioten garaia da iraila eta aproposa arraun denboraldiak eman duena aztertze-ko. Zapore gazi-gozoak utzi dizkigu aurtengo denboraldi honek. Uretako lanak, ur gazitan egiten diren arren, sentsazio gozoa. Gazitasuna, berriz, uretatik kanpora dastatu behar izan dugu, Joxe Mari Urdangarinek bat-batean utzi gintuen eta.

Ez zaigu edonola joan, ordea. Arraunlariak esan bezala, bigarren igandean txalupan izan zen beren artean, urrezko Mirotxa garai-penera bultzatuz, bere bizi-indarra eskainiz. Bukaeran Irakoitzek besoa jaso, zerura begiratu eta Orioko arraunzale guztien mezua igorri zion: *Eskerririk asko Joxe Mari, eta bejondaikela!*

Hurrengo bandera berarentzat izango zela ere zin egin zioten arraunlariak. Eta, ostera ere, Joxe Mariren indarra han azaldu zen. Kontxa amaitu eta aste betera soilik, Mirotxak, berriz ere, kontrario guztiak hautsi zituen nagusitasunez. Beltz eta berde koloreko bandera, Joxe Mariren bandera, Orion aspaldiko partez. Ez dira kasualitate hutsak. Gizon maitatu eta errespetatu batek ematen duen indarraren poderioz lortutako garaipenak dira. Hutsune handia utzi duen gizon baten garaipenak. Goian bego Joxe Mari, eta aupa Orio!



IGON LERTXUNDI  
ORIOKO AE-KO PRESIDENTEA

## Arraun-hegaldi dotorea erakutsi du Mirotxak Kantauri osoan

## Gazitasuna uretatik kanpo dastatu behar izan dugu, Joxe Mari Urdangarinek bat-batean utzi gintuen-eta

Uretako lanak, berriz, gozoak izan dira. Gaztetxoek aurten ere makina bat bandera irabazi dute batelean eta trainerillan. Baina, garrantzitsuago dena, asko-

tan gutxiegi mimatzen den aulki mugikorraren magia berenganatu dute. Helduen kasuan ere landu dugu aulki mugikorra, batik bat Nazioarteko Estropada antolatuz. Egun borobila izan zen hura, arraun festa peto-petoa.

Aspaldiko partez, bi traineru uretan: *Txiki* eta *Mirotxa*. *Txiki* handi baten aurka, Astillero, David eta Goliaten antzera. Ezin izan genuen Goliat hori garaitu, baina bai Goliat izatera deitua dagoen beste bat, Kaiku, Santoñako estropadan. Eskertzekoa arraunlarien lana eta ilusioa. Segi horrela!

Eta *Mirotxari* buruz, zer esan! Arraun-hegaldi dotorea erakutsi du Kantabriko osoan. 5 bandera eta foto-finishak dantzan jarri zituzten hainbat bigarren postu. Denera 3., historia guztian maila handiena izan duen Ligan. Ez da meritu makala.

Denboraldi berezi honen beste bi adierazle: emakumeek, historian lehenengo aldiz, Kontxako bandera jokatu zuten. Beren artean Orion aritutako hainbat gazte, bi trainerutan banatuta: Tolosa eta Getaria-Zumaia. Horra hor oriotarrontzako etorkizunerako beste erroka bat. Eta estreinako aldiz, baita ere, Espainiako Llaüt txapelketan parte hartu dugu, garaipen lortuz Malagako ur bareetan.

Guztitan laguntzarekin, *Mirotxa* eta Arraun Elkarteak ez dira inoiz bakarrik joango...

## NIRE HONETAN

# 4 urte ta gero... ariyo!

**A**upa irakurle. Zenbat hobetu den KARKARA aurreko zenbakitik honetara, ezta? Neroni ere harritu nau *mejorak*. Nire ausentziaren lehen ondorioa izango da? Jakin banekien KARKARA ez nuela betiko lantoki izango, baina sortutako aukeraren eta hartutako erabakiaren bat-batekotasunak eragin didaten zorabioaren eraginpean idatzitako lerro solteak dituzu hauek, 245. zenbakiarekin bukatu baititut hemengo lanak, beste bide bat hartzeko. Gustura; baina penaz, eskola ezinhobea izan dudalako KARKARA. Duina. Eta agurrak gustuko ez ditudan arren, eskerrak eman nahi dizkiet 2004ko urritik hona bidelagun izan ditudan lankide eta arduradunei. Nirekin izandako pazientzia eta jarreragatik. Eta baita herritarrei ere, nola ez bada! Idatzi ditudanekin gozatu duten bi edo hiru horiei, haserretu izan zaizkidanei... eta hemendik pasa naizenik ere konturatuko ez zen gehiengo horri.

Ez nuke aldizkariari lotzen nauen haria bat-batean moztu nahi, eta negoziatioak bide onetik badoaz, aurrerantzen ere tarteka irakurrik dituzue nik idatzitakoak. Hori bai, Jokin Salsamendi bezala: profesionalen katxearekin. Ondo-ondo bizi eta aio!

PATXI URANGA

**Pinturak ELKAR**

pintura eta paperatze lanak zoru leunketa

Abendaño industrialdea  
943 83 08 45 / 619 50 23 35  
ZARAUTZ

Kinkladenda- Ume arropa

**argine**

www.lasnet.com/argine  
Tel. 943 13 48 89

25eko BASKONTUA FAMILIA  
UGARIEN TXARTELAREKIN

IMANOL AGUIRRE MANTEROLA  
ARKITEKTOA

OBRA PROIEKTUAK  
ETXE BERRIAK ERANTZETZ  
ZAHARRERTZETZ KANPIK  
ETA BARRUTIK

URBANIZAZIO PROIEKTUAK  
OBRA ZUZENDARITZA  
TXOSTENAK

MOBILA: 636-957 480  
94384 ERAMUNTZA, 3-1

## MOILA BAZTERRETIK

# Badator; badator krisia



JOKIN SALSAMENDI

**B**aiez esan didate. Aurtan ere nire kolaborazioa behar-beharrezkoa dutela, ezinbestekoa. Ainara Peña kalera bota dutela, gaizki idazten zuelako, gatzik gabe eta ez zuela maila ematen KARKARAN eskribi-

tzeko. Haren ordezkari kategoriako kazetaria hartu dutela, proba moduan. Garbiñe ere urdu-ri omen dabil. Kezkatua. Bera ote den hurrengo kalera joaten. Eta Torrotxo, bueno Torrotxo; ETBn lana egiten duela-ko libratu dela diote herrian. Nik herrian bolo-bolo dabilena kontatu dut soilik. Badakizue krisia gizarteko alorguztietara iristen da eta baita herriko enpresa onenetara ere.

Udararen balantzea oso txarra izan da. Ez dugu Kontxa irabazi nahiz eta onenak izan —baja pertsonal garrantzitsua barne— krisi ekonomiko azkenean heldu da —euri-borra dopatutakoa baino azkarrago gora; gastua *itxiaferotua* eta jornala XX. mendean— eta oriotarrok Olinpiadetan ez dugu urrezko

dominarik jaso —trafiko multa pertsonako kirolean seigarren postu duina lortu du Oriok. Arrantzaleen kostera txarra, eta eguraldi eskasak turismoa beldurtu du. Euskal arazoa ustelduta eta taberna eta negozio asko agonia jotzen... denbora kontua.

Baina gauza onak ere izan dira. Era positiboan pentsatu beharra dago. Etxeak merkatu dira eta orain 50 milioi bakarrik balio dute —25 bat urteko aurrezkiak— eta Udalaren Plaza aldizkarian irakurri dudanez Anibarko Portuko parkearen aldamenean zakarrontzi berria ipini dute. Eta hondartzako bidegurutzean ispilua. Hurrengo alean kontainerrari gupila berria ipini diotela esango digute eta bi farolei bonbilla aldatu behar izan dietela.

**KARKARAKO nire  
jornala erdira  
jaistea erabaki dut,  
eta faborez ez  
esan ezetz ze  
erabakia hartua  
dago**

Hori da udal baliabideak efizienteki erabiltzea. *Austeritatea*.

Urte gogorra datorkigu eta denok utzi beharko dugu bidean zerbait. Horregatik aurtan KARKARAKO nire jornala erdira jaistea erabaki dut, eta faborez ez esan ezetz ze erabakia hartua dago.

Igo zaitoz haize berristoral!

**Galerna I**

943890416-677149932  
galerna1orio@hotmail.com

**ARKAITZ**  
Taberna

Pinxoak,  
plater konbinaluak  
eta ogi larreko mundialak

MUSLARI KALEA, 4      Tel: 943 83 16 57

ardoak, urdaikiak, gaztak,  
kontserbak, janari prestatuak

etxeraino  
eramaten ditugu

**ERIKY BARRI**

943 83 09 84      aita lertxundi, 36  
ORIO

**TANATORIO ZARAUZ**

EUROFUSTERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- \* Donostia eta probintziako ospitaleetan
- \* Akzioerako zerbitzuak
- \* Belatorio gelak
- \* Koroak, eskelak, tramitazioak...

Azaba kalea, 35 Zarauz

Tel: 943 89 49 37 / Fax: 943 89 46 41  
e-mail: harraspil@harraspil.net

**URANGA**

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net

Tel/fax: 943 8312 36 Euzko Godari, 5

**TAILER MEKANIKO A**  
**MANTEROLA S/L**

TIORROKAK - BALBUA

Santiago ezua - 18 postakutxa  
Tel. 943 830 743  
Fax. 943 134 634  
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net  
20 810 ORIO - GIPUZKOA

**TMM**

AENOR  
E-Net  
180 0000

Estorako balbula  
AENOR kalitate ziurtagiriduna

**Carmen eta Txomin**  
ARRANDEGIAR

943 83 05 37 / 943 83 27 47

**bodegasERRASTI, S. L.**



Eskualderako banatzailea  
Zudugarai, Getariako tsokolina  
Ilagares, ardo gorri nafarra  
Bodegas Galfur: Señorío de Laurgain  
Galfur eta Ardandegi,  
Arabar Errioxako ardoak

Eusko Gudari, 46 ORIO • 943 83 03 86 / 83 99 52 • E-posta: bodegaserrasti@euskalnet.net

tel/fax: 943 89 00 69  
Bikolaikalea, 4 - 20.800 ZARAUZ



ITURGINTZA\_BEROGINTZA  
GASA\_BAINU ERAKUSKETA

**ekonomista**  
ko. zli. 14.291

ENPRESEN FINANTZA  
ETA AHOLKULARITZA

Begoña Aranegi  
Ekonomisten Euskal Elkargoa

Tel: 615 763 441



**islada**  
estética zentrua

Sheila De Miguel - Saray Cendoya

Kalearen kalera, 2. behean Orrio zentroa  
Tel: 943 133 836  
e-maila: isladazentro@hotmail.com

**Nahikari**

HALUR DENDA  
TIENDA DE PLERIDULTURA

Amintzale kalea, 35  
20100 - Orrio  
Tel: 943 83 34 30  
www.nahikari.es



**ARIDATZA** modas

Eusko Gudariak, 7 • 943 83 10 88 • ORIO

**LEIHOLAN**

Aholkularitza teknikoa eta erakusketak

<b>Fitxak</b> Agroteknika/Ingeniaritza Agroti, 3, 20740 Zarautz	<b>Erakusketak</b> San Frontotxa, 1, 20800 Zarautz	<b>Erakusketak</b> Aina Lortzandil, 21, 20910 Orrio Tel: 943 89 48 34
--	--	--

**Izarra**

**ARGAZKIEN  
ERREBELATU DIGITALA  
MOMENTUAN**

KODAK KALITATEAZ

Edozein euskarri digital,  
bita sakelakoan Bluetooth-are.

**Bideo Produktzioa**

Aritzagui 15, Orrio / izarra7@vodafons.es / 943 83 38 81

**ITSASADARRA, S. L.**

Jose Angel Iradi Udabe

aseguru artokaria  
finka administratzailea  
gestoria  
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel: 943 89 40 29 Fax: 943 83 54 96 itsasadarra@itsasadarra.com  
Ibai Ondi 4, behean, 20910 Orrio

**BEREZI**  
moda eta osagarriak

edozein tokian BEREZI sentitzeko arropa

Arrantzale kalea, 3  
Tel: 943 89 05 29

- Lois - Caroché - Guess? - Pepe Arellano - Jackpot - Diesel - Cotton Field -

**uranga**  
autozerbitzua



**Aliprox**

Eusko Gudari Kalea 13-15  
ORIO  
943 83 38 75

**AMILIBIA**  
ONTZIOILAK, S. L.

lurrel permatzen produktua  
eta instalazioak

guz erabilako lekuetatara  
arrazon-ontzak

Olaskeaga auzoa, 52  
34 943 83 08 29  
faxa 34 943 89 40 81  
amilibia@amilibia.com  
www.amilibia.com

**INDO**

Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA



Olaskeogia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO



## Lehengusuak Pillikun

**E**z ziren Goiko Kaleko festak 1945. urtearen inguruan argazki hori egin zenean, sanpedroak baizik. Nonbait, Joxemari Salsamendi, orduan famaren gorenean zegoen Salsamendi III.a pilotaria, Madriletik etorri berria zen egun batzuk pasatzera Oriora; Goiko Kalera joan eta Danbolineneko familiakoekin topo egin zuen eta ez zuten aukera galdu nahi izan elkarrekin

fotografia egiteko. Gonzalez de Txabarrirarrak dira argazkiko ia denak, lehengusuak. Artean Klaudia G. de Txabarriren senargaia zenak atera zuen fotografia.

Atzetik hasi eta ezkerretik eskubira: Joxemari Salsamendi — Salsamendi III.a pilotaria—, Klaudia G. de Txabarri, Luis Azkue, Rufino G. de Txabarri (aita), Teresa Loidi,

Mercedes Salsamendi, Juanita Oliden, Gregoria Salsamendi, Manuela Atxega, Mariano Oliden, Matilde Salsamendi, Maria Aramendi eta Rufino G. de Txabarri (semea).

**ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA:**  
ELISABETE, MARGARITA ETA  
RUFINO G. DE TXABARRI

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

# KARKARA

**Joana Murgiondo**  
Aseguru-agentzia

**ASEGIURUAK**

**CCI**  
CARERA, SILVET, LACORT Y CIA. SA

Abeslari, 4- 2. esk.  
Tfnoa: 943 13 46 07

*Lizaso*  
dekorazioa

**Eusko Gudari, 49**  
Tf: 943 83 07 84 FAX: 943 83 07 83

**LURDES**  
MATEADECIA

**Eusko Gudari, 4- Tel. 943 83 00 24**

**Allianz**

**Marigre Zaldua**  
aseguru agentzia

Ibai Ordo, 10 lehen-oina  
telefonoa: 943 13 47 60  
fax: 943 83 57 52  
e-maila: zaldia.delacruz.paz@allianz.es

## KRITIKA



Orio herrixka, gogoan hartzeko liburua idatzi du Patxi Olidenek.

KARKARA

## Garai bateko Orio bizi-bizi memoria lan ederrean

Eskutik helduta, txikitanez egagutu zuen Orioko kale eta karkaretatik barrena garamatza Patxi Olidenek liburu txiki, baina mamitsuan. Ibilbidea buruz daki gidariak eta zalantza gutxiarekin deskribatzen dizkigu garai hartan bizi zirenen eginbehar, ogibide, ohitura... oraintxe ikusiko balitu bezala marrazten ditu guretzako bazterrak banan-banan, bizi eta indartsu.

Hain berea duen hizkuntz argia eta zehatza erabiliz lortzen du hori Patxi eta ikasle liluratuen moduan segi-

tzen diogu, hitzez hitz, bere gogoaren atzetik pausorik galdu gabe, egagutu ez dugun haren aztarnetan aurkitu nahian gure Orio. Ez dago nostalgiarik liburuan, arkeologoaren lana balitz bezala, guretzako ekartzen du izan zena; baina han geratu zen non edo non, eta kitto; bizitzen jarraitu behar du.

Hori guztia argitalpen oso txukunean dator, formatu eta maketazio dotoreak argazki eta irudi aukeraketa apartarekin osatu direlako. Ederra liburua, azal eta mami, eta txalogarria Uda-

laren ahalegina horrelako altxorra jaso eta herritarrei eskainiz.

Gauza pare bat bai aipatu nahi ditudala, estimatze-koak izaten direlako irakurleentzat. Patxi Olidenek testua dena segidan dago jarrita, kontakizuna antolatuko duen markarik gabe: atalakeo sartzea helduleku moduan, asko lagunduko zuten irakurtzeko garaian. Fotografiei oinean argibideak—noizkoak diren, zer...—jartzea ere ez zen gauza txarra izango.

ANA G. DE TXABARRI

## IKASLEAK IDAZLE



IRATXE OLIDEN |

DBH X

## Orioko hondartzaren egoera

Antilla hondartzak aldaketa handiak jasan ditu azken urte hauetan, hondar garbi eta leuna izatetik, hartxintzar izateraino. Aldaketa horien eragile nagusia kanpoko muturra da, eta korrontek bertako harri txikiak hondartzara ekarri ditu. Horrela, ur ertzetik hasi eta hondartzan zabaldu dira.

Hartxintzarrez gain, uraren eraginez ere ur ertzean aldapa handia sortu da. Oso desegokia da oinez ibiltzeko eta baita haurrak uretan bakarrik sartzeko ere. Izan ere, guztientzat da oso arriskutsua.

Orion bi hondartza izanik, ez da logikoa bat bera ere egoera onean ez egotea. Arazo horren ondorioa herritarrok eta herrira etortzen direnek ordaintzen dugu eta bada horri konponbidea bilatzeko garaia.

FISOTERAPIA: Garbilitz Arístegui eta Natalia Wieruszki  
NUTRIZIONISTA: Garbilitz Arístegui

**sinergia** investigación fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

Orioko Ogia

**ORIOGI**

OPIL OKINDEGIA  
Frontoi ondoan  
Ifnoa: 943 83 01 89

## HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Merkatuko askatasuna askatasun sindikalaren eta langileen skubideen gainetik jartzen dira.”

**LAURA G. DE TXABARRI**  
ELAko arduraduna  
Gai monografikoak  
2008/09

“Segur aski, gu gara naturalak ez garenak, arraunlariak; zirkoak funtziona dezan ezinbestekoak garen bakarrak. Edozer onartzen dugunak. Esaterako, larunbatean Bermeokoa. Sekula ez dut ikusi halako ontzi kaosa estropada eremu baten barruan.”

**IBON GAZTAÑAZPI**  
Arraunlaria  
Berria  
2008/09/23

## OSPAKIZUNA



## Lau belaunaldi elkartuta

Apirilean 90 urte egin zituenean desio bakarra zuen gogoan John Cowiek: alaba Paten etxera etorri eta jaioberrria zuen berbiloba, Usua, ezagutu. Horrela, lau belaunaldi elkartu ziren irailean Aian, egun pare bat elkarrekin pasatzeko.

Hemen dituzue John eta Ellen Cowie Eskoziatik etorrira, Pat bera eta Iona alaba, eta maiatzean jaio zen Usua —elkartzearen aitzaki polita— denak batera. Johnek eta Ellenek berbiloba ikusi, besoetan hartu, musuak eman... nahi zuten guztia egin eta gero, denbora aurkitu zuten Aia, Orio, Getaria eta Zarautz bisitatzeko, eguraldi onak lagunduta. Bitartean haiekin etorri ziren Paten anaia Gordonek eta koinata Audrey-k kostaldea goitik behera ikusi zuten.

## ZORIONAK!



## OKK Gazte asanbladari

Ez delako batere erraza hainbeste jende ados jarri eta lanean gogor egitea, festak bezalako gauza gozo eta erakargarria izanda ere.

Hori erakutsi digute gazteek, badutela burua eta gogoak gauzak txukun eta modu egokian egiteko eta, bide batez, ingurukoekin gogoratzeko. Zer nahi duten badakitela eta hori lortzeko bidea egiten ere bai, burujabe izan eta aldarrikapenak egin non dauden eta norekin ahaztu gabe, berearekin bakarrik ibili gabe.

Kutsakorra beharko luke ikasgaiak, herrian barrena zabaltu eta guztia eta guztiok bustitzeko.

**LUXARBE**  
Igeltserbitzu

Igeltserbitzu orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Telefonoa: 943 83 59 00

**Automóviles ZARAUTZ**  
CITROËN ZERBITZU OFIZIALA

biguria berrak eta iru lantzek

ZARAUTZ. Tel. 943 13 13 50

**ZAPATA KONPONKETAK**

Lanegutia: 09:00 - 19:00 eta 19:00 - 19:00  
Larrietatik: 09:00 - 19:00  
Herriko eremutik, Orio

**ORIOKO HERRI IKASTOLAK**  
ondorengo soslaiak duten langileak behar ditu:

- Garbitzailea  
Ikastolako gurasa, gurasa ohi edo ikasle ohi izatea ezinbestekoa da.
- Hezkuntza laguntzarako espezialista  
EGA eta ikasketak izatea beharrezkoa da.

Orioko Herri Ikastola. Abeslari 8  
943 13 09 38; orio@ikastola.net; www.oriokoikastola.net

Interesatuak ikastolako idazkaritzatik pasa daitezela urriaren 3a baino lehen

**SOLOZABAL autoeskola**

Eusko Gudari, 30-1. ezk  
telef: 943 83 08 12

aroztegia  
**MIRANDA**  
Jose M. Miranda

farina, aho, botxo, eskalera...  
behar dituzun arazo larriak  
egongo dituzkugu

Erantzun bidea. T +655 42 52 70 - ZARAUTZ

## OROIMENAREN KUTXA



Faustina Azkue eta Teodoro Mitxelena senar-emazteak. Gizona falangistek hil zuten 1936an, Xuai gainean.

FAMILIAK UTZITA

## JAIOTAKOAK

- Maddi De Andres Ostolaza, Orion, irailaren 21ean.
- Leire Vanessa Fiallos Parada, Orion, irailaren 9an.
- Joshua Aratz Huete Padilla, Orion, irailaren 5ean.

## EZKONDUTAKOAK

- Elena Etxeberria Sedano eta Patxi Arnal Carrere, Orion, irailaren 27an.
- Miguel Angel Rivas Oldorff eta Veronica Tamayo Velez, Orion, irailaren 20an.
- Maider Lizaso Iribar eta Mikel Lizaso Zulaika, Orion, irailaren 20an.

## HILDAKOAK

- M. Teresa Salsamendi Zubeldia, Orion, irailaren 12an. 84 urte.
- Gregoria Arizeta Zinkunegi, Orion, irailaren 23an. 80 urte.
- Luis Larraza Gurrutxaga, Orion, irailaren 17an. 92 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:  
943 83 15 27



## Orion hil, Getarian lurperatu

**G**regorio Zubizarreta Areizaga Getariko herritar eta bertako lurperatzaileak zinpean aitorzen du: 1936ko urriaren 25eko goizaldean, Getarian zeuden bi falangistak, Timoteo Orte jauna eta Garcia izeneko beste bat, eskatu ziotela kanposantua ireki eta bertan gorpu bat lurperatzeko, eguna argitu aurretik. Agindua obedituz, hilerrira joan zen, haren ondoan, bide ertzean gizon bat zegoen hilda, angarila batean jaso eta kanposantuan sartu zuten. Zubizarreta jaunari ezaguna egiten zitzaion hildakoa eta uste zuen Oriokoa zela, baina ez zekizkien haren izen-abizenak. Gerora jakin zuen, norbaiti entzunda, hildakoa Teodoro Miche-

lena Zumeta zela eta hilda agertu aurreko gauean etxetik atera zutela. Hortaz, adieraz dezake gizon hori Getariko hilerrian lurperatu zuela 1936ko urriaren 25ean, erregistro zibilean izen eman gabe eta epailearen agindurik gabe.

Eta dagozkion ondorioak izan ditzan, sinatzen dut honako agiria, interesdunak horrela eskatuta, Getarian 1939ko abenduaren 11n.”

Aurreko hitz horiek (jatorrizko agirian erdaraz) Getariko alkateak eta lur-emaileak sinatuta daude, eraiketa-tik hiru urtera. Agiria aurreko astean, 2008ko irailaren 25ean, ekarri zuen Martxiel Urkizuk Orioko udaletxera, egunkarian irakurrita Eusko Jaurlaritza 1936ko gerran hil-

dakoen zerrenda osatzen ari dela, oroimen historikoa berreskuratzeko.

Teodoro zenaren alaba M. Carmenen senarra da Martxiel. Hark esanda dakigu Mitxelena Donibane Lohitzunera joan zela gerra hasi berritan, beste hainbat oriotar bezala, San Antonio baporean, eta bertan aste batzuk pasa zituela, harik eta Oriotik abisua ailegatu zitzaion arte dena lasai zegoela eta etortzea bazeukala. Etorri eta hurrengo gauean Xuai gainean garbitu zuten. M. Carmenek 5 hilabete zituen egun hartan. ELAko afiliatu izatea zen Teodororen delitua, besterik ez. Herritar batek salatu ote zuen, susmo horixe dute.

IÑAKI ITURAIN

Sukalde eta bainuen erreformak

**XANTI MUJIKA**

**Igeltseritza**

699 46 76 21  
943 13 10 37

Peluteria eta estetika mistoa

**ZASS**

- Tintak argiztasun eta koloretan naturalak
- Detrituak eta gela irakurketa
- Azkazu enbeldutak
- Pediluna
- Depilazioa

See Nihola, 2 Tel: 943 83 31 70

Zaragueta Eskola Orrio

telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@hezkiuritza.net



THIOR BABACAR ARRANTZALEA ETA ZOURIDINE MOUHAMED THIOR HAREN SEMEA

# “Hainbeste jende zuria ikusteak harritu ninduen”

**Maite Azkue eta Jesus Mari Aiertzaren Jon semearekin pasa ditu azken 4 asteak Zouridinek etxean. 14 urteko mutikoa Senegaletik oriotarrari bisita egitera etorri da, eta bide batez, aita ikusteko balio izan dio. Thior Babacar da aita, arrantzalea da Getariako Pedro Jose baporean. Istorio berezia da Jon eta Zouridinerena.**

**Zer nolako bidaia egin zenuen hona etortzeko?**

Z: Bakarrik etorri nintzen bihegalditan: Dakar-Madrid, Madrid-Donostia. Hegazkina hartzen nuen lehen aldia zen, bakarrik ibili nintzen eta asko gustatu zait esperientzia. Egia esan, beldur pixka bat ere sentitu nuen.

**Zerk harritu zaitu aurreneko egunetan?**

Z: Aireportua ederra iruditu zitzaidan. Dakarren baina auto gehiago daude kalean, semaforo gehiago ere bai, kaleak oso zabalak dira, eta bidegorriak daude bizikletentzat.

Realaren entrenamendura ere joan ginen eta asko gustatu zitzaidan, ni neu ere futbolearen aritzen bainaiz futbol eskola batean.

Bestalde, azal zuriko hainbeste jende ikusteak ere harritu egin ninduen. Jonen eskolara joan nintzenean denak niri begira gelditu ziren!

**Nola ezagutu zenuen Jon?**

Z: Egun batean, gure aita trenean zetorrela, Jon bere ondoan eseri zen, eta oso mutil ona iruditu zitzaidan: horregatik bakarrik, alboan eseri eta hitz egiteko prest zegoelako. Izan ere, oso jende gutxi jokatzeko du horre-



Aita itsasotik etorrita, elkarrekin egoteko egun motza izan zuten.

KARKARA

**Semaforo, auto eta bidegorri gehiago daude hemen, nahiz eta Dakar handiagoa izan**

la. Orduan aipatu zion aitak adin bereko semea zuela berak —orain 14 urte ditugu Jonek eta biok— eta, nahi izanez gero, harremanetan jar gitezkeela gutun bidez. Jonek gaztelaniaz idazten dit, gaztelania ikasten baitut eskolan eta nik frantsesez idazten diot, Jonen amak, Maitek, frantsesa badaki eta.

**Jon oso mutil ona da, aitaren iritziz, ondoan esertzeko eta hitz egiteko prest ikusi zuelako**

**Nola moldatu zara Jonen lagunekin?**

Z: Gaztelaniaz egiten dut haiekin. Futbolearen, eskubaloian, saskibaloian, skateboardarekin, bizikletarekin... jolasten aritzen gara. La Salle ikastetxera ere joaten naiz goizero Jonekin, baina euskaraz egiten dute eta nik ez dut ulertzen. Matematiketan, ordea,

ondo moldatzen naiz eta gaztelania ariketak ere egiten ditut.

**Hemengo janaria gustatzen al zaizu?**

Z: Orokorrean bai; baina barazkiak ez, eta, musulmana naizenez, ez dut txerrikerik probatu ere egin. Ramadana hasita abiatu nintzen hona, baina hemen ohiturak ez ditut jarraitu. Guk ez dugu alkoholik edaten eta harritu nau ikusteak zenbat edaten den hemen.

**Zenbat hizkuntza ezagutzen dituzu?**

Z: Serere etniakoa naiz eta ama hizkuntza sererea dut. Senegalgo hizkuntza nagusia ere badakit. Eskolak frantsesez hartzen ditut eta gaztelania pixka bat ikasten dugu.

**Aitaren falta sentitzen duzu hemen lanean dagoenean?**

Z: Norbaitekin sesioa badut aita joaten da haiekin hitz egitera —batzuetan nire defentsan batzuetan nire kontra—; baina, aita ez badago, amak egiten du. Arrebek ez, jakina, 10, 7 eta 2 urte besterik ez dituzte eta.

**Eta aitak zer dio?**

T: Ezin dut nire historia guztia kontatu, baina esan nahi dut leku guztietan jende ona eta txarra dagoela, eta familia hau benetan ona da. Inoiz ez zitzaidan burutik pasa bere gain hartuko zituztela semea hona ekartzeko lana eta gastuak. Aurreneko aldiz pasako ditu Orioko azal zuriko familia batean oporrak gaztetxo afrikar batek. Poza handia eman dit horrek; bazeukan nirekin egotea, baina poza handia eman dit familiaren abegikortasunak.

TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA - ZARAUTZ

Donostia	05:47	06:17	06:47	07:17	07:47	08:17	08:47	09:47	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47
Aia-Orio	<b>06:14</b>	<b>06:44</b>	<b>07:14</b>	<b>07:44</b>	<b>08:14</b>	<b>08:44</b>	<b>09:14</b>	<b>10:14</b>	<b>11:14</b>	<b>12:14</b>	<b>12:44</b>	<b>13:14</b>	<b>13:44</b>	<b>14:14</b>
Zarautz	06:19	06:50	07:20	07:50	08:20	08:50	09:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20

Donostia	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	<b>14:44</b>	<b>15:14</b>	<b>15:44</b>	<b>16:14</b>	<b>16:44</b>	<b>17:14</b>	<b>17:44</b>	<b>18:14</b>	<b>18:44</b>	<b>19:14</b>	<b>19:44</b>	<b>20:14</b>	<b>21:14</b>	<b>22:14</b>
Zarautz	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ - DONOSTIA

Zarautz	06:08	06:38	07:08	07:38	08:08	08:38	09:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08
Aia-Orio	<b>06:15</b>	<b>06:45</b>	<b>07:15</b>	<b>07:45</b>	<b>08:15</b>	<b>08:45</b>	<b>09:15</b>	<b>10:15</b>	<b>11:15</b>	<b>12:15</b>	<b>12:45</b>	<b>13:15</b>	<b>13:45</b>	<b>14:15</b>
Donostia	06:39	07:09	07:39	08:09	08:39	09:09	09:39	10:39	11:39	12:39	13:09	13:39	14:09	14:39

Zarautz	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:09	19:38	20:09	21:09	22:09	22:38
Aia-Orio	<b>14:45</b>	<b>15:15</b>	<b>15:45</b>	<b>16:15</b>	<b>16:45</b>	<b>17:15</b>	<b>17:45</b>	<b>18:15</b>	<b>18:45</b>	<b>19:15</b>	<b>19:45</b>	<b>20:15</b>	<b>21:15</b>	<b>22:15</b>	<b>22:45</b>
Donostia	15:09	15:39	16:09	16:39	17:09	17:39	18:09	18:39	19:09	19:39	20:09	20:39	21:39	22:39	23:09

AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
06:55	07:25	07:35	06:45	06:55	07:30
07:40	08:15	08:25	07:15	07:25	08:00
08:10	08:45	08:55	07:45	07:55	08:30
08:40	09:15	09:25	08:15	08:25	09:00
09:10	09:45		08:45	08:55	09:30
09:40	10:15	10:25	09:20	09:30	10:10
10:40	11:15	11:25	09:45	09:55	10:30
11:40	12:15	12:25		10:30	11:10
12:10	12:45	12:55	10:45	10:55	11:30
12:40	13:15	13:25	11:45	11:55	12:30
13:10	13:45	13:55	12:45	12:55	13:30
13:40	14:15	14:25	13:20	13:30	14:10
14:10	14:45	14:55	13:45	13:55	14:30
14:40	15:15	15:25	14:20	14:30	15:10
15:10	15:45		14:45	14:55	15:30
15:40	16:15	16:25	15:20	15:30	16:10
16:40	17:15	17:25	15:45	15:55	16:30
17:40	18:15	18:25		16:30	17:10
18:10	18:45		16:45	16:55	17:30
18:40	19:15	19:25	17:45	17:55	18:30
19:10	19:45	19:55	18:45	18:55	19:30
19:40	20:15	20:25		19:30	20:10
20:15	20:50	21:00	19:45	19:55	20:30
21:00	21:35	21:45	20:45	20:55	21:30
22:15	22:50	23:05	21:15	21:25	22:00

ASTEBURUETAN

Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
08:00	08:35	08:45	06:45	06:55	07:30
09:00	09:35	09:45	07:45	07:55	08:40
10:00	10:35	10:45	08:45	08:55	09:40
11:00	11:35	11:45	09:45	09:55	10:40
12:00	12:35	12:45	10:45	10:55	11:40
13:00	13:35	13:45	11:45	11:55	12:40
14:00	14:35	14:45	12:45	12:55	13:40
15:00	15:35	15:45	13:45	13:55	14:40
16:00	16:35	16:45	14:45	14:55	15:40
17:00	17:35	17:45	15:45	15:55	16:40
18:00	18:35	18:45	16:45	16:55	17:40
19:00	19:35	19:45	17:45	17:55	18:40
20:00	20:35	20:45	18:45	18:55	19:40
21:00	21:35	21:45	19:45	19:55	20:40
22:00	22:35	22:45	20:45	20:55	21:40
22:30	23:05	23:15	21:45	21:55	22:40

DHARRA: lanegunetan koedro argidun ordutako autobusak Urbiatetik pasatzen dira. Asteburuetan, berriz, guztiak pasatzen dira. Koedro ilunetako ordutak lanbalekako (laneguna) zerbitzua bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darma. Zerbitzuan buruzko informazioa lortzeko zerbait bide daude:

www.landabus.com Tf. 943 24 01 14 sms-a 5280 zenbakira

ITSASOA

Urria	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
03	07:11 eta 19:30	01:05 eta 13:22	
04	07:44 eta 20:04	01:37 eta 13:58	
05	08:21 eta 20:43	02:12 eta 14:38	
06	09:08 eta 21:37	02:53 eta 15:29	
07	10:17 eta 23:05	03:49 eta 16:41	☾
08	11:50 eta _____	05:18 eta 18:17	
09	00:52 eta 13:14	06:57 eta 19:38	
10	02:03 eta 14:14	08:04 eta 20:32	
11	02:49 eta 15:00	08:50 eta 21:12	
12	03:27 eta 15:39	09:28 eta 21:49	
13	04:02 eta 16:16	10:03 eta 22:24	
14	04:36 eta 16:53	10:38 eta 22:59	☉
15	05:11 eta 17:31	11:15 eta 23:35	
16	05:47 eta 18:11	11:55 eta _____	
17	06:27 eta 18:54	00:14 eta 12:37	

ZAINTZAKO BOTIKAK

URRIA

- 03an, G. Artiñano.
- 04ean eta 05ean, Zulaika.
- 06an, Iriarte.
- 07an, Mutiozabal.
- 08an, Etxeberria.
- 09an, G. Artiñano.
- 10ean, Larrañaga.
- 11n eta 12an, Azaldegi.
- 13an, Mutiozabal.
- 14an, Etxeberria.
- 15ean, G. Artiñano.
- 16an, Azaldegi.
- 17an, Zulaika.

- Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- G.Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41 943 13 39 94 Zarautz

**BERTSO BIDEA**

■ Urriaren 13an, GR bertso bideko saioa: Orio-Urretxu/Zumarraga. 23:00etan, Kolon Txiki tabernan.

**ARETO FUTBOLA**

■ Urriaren 5ean, nazional B kategorian: Orioko Tabernak-Elorrioko.  
■ Urriaren 12an, nazional B kategorian: Allerru Algeposa-Orioko Tabernak.

**PODOLOGOA**

■ Aian, urriaren 11n. Ordua hartzeko Udalean eman behar da izena. Tf: 943 13 11 44.

**TRASTE ZAHARRAK**

■ Orion, urriaren 15ean jasoko dituzte altzari zaharrak. Bezperan utzi behar dira zabor lekuetan, eta Udalean abisua eman nolakoak diren esateko.

**GOIKO KALEKO FESTAK**

■ Urriaren 10ean, batukada taldea, 19:30ean; mus txapelketa. 22:00etan.  
■ Urriaren 11n eta 12an, 2. eskuko liburu azoka.  
■ Urriaren 11n, krono igoera, 10:30ean; 16:30ean, altxorren bila; 17:00etan, zinta jokoa; 18:00etan; txokolatada eta toka; 19:30ean, TTukuttun txalaparta, 21:00etan; Mikel

**Piraguan irteera**

Herri natur taldeak piragua irteera antolatu du urriaren 4rako. Arranplan elkartuko dira 17:30ean eta ontziak hartu ondoren, Santio errekarara abiatuko dira, bertako faunaren eta floraren inguruan Herrikoek emango dituzten azalpenak entzuteko.

Interesatuak arranplara agertu beharko dute, ontzirik ote dagoen galdetzeko, 25 piragua baitaude.

Aranzabalen eta Eñaut Martiren kontzertua.

■ Urriaren 12an, diana eta tortilla lehiaketa, 11:00etan; hamaiketakoa eta kantaldia Mutiko alaiekin, 12:00etan; bazkaria, 14:30ean.  
■ Kantu bazkarirako txartelak Gabon eta Kala Karin daude salgai, urriaren 10a arte. Prezioa: 10 euro.

**FUTBOLA**

■ Urriaren 4an, regional kategorian: Anaitasuna-Orio. Jubenilean: Orio-Anaitasuna. Kadeteen: Orio-Usurbil. Infantilean: Amara Berri-Orio. Emakumezkoen Ligan: Amaiak Bat-Orio. F-11n: Añorga-Orio.  
■ Urriaren 11n, regional kategorian: Orio-Urola.

Jubenilean: Lagun Onak-Orio. Kadeteen: Lengokoak-Orio. Infantilean: Orio-Martutene. Emakumezkoen Ligan: Orio-Zumaia. F-11n: Orio-Luberri.

**MENDI IRTEERA**

■ Urriaren 12an, GR 34ko 2. etapa, Talai Mendik antolatuta. Irteera: 07:00etan autobus geltokitik. Izena ematea: Uranga burdindegian, urriaren 9a baino lehen.

**SILO BOLAK**

■ Aian, urriaren 14an. Zerbitzuaren inguruko informazioa jasotzeko Urkomera deitu: 943 81 65 00; edo bertako Igorrekin hitz egin: 660 04 97 51.

**SARIA**

■ Patxi Olidenen *Orio herrixka* liburuko 12 ale oparituak ditu Udalak. KARKARAREN laguntzaileen artean zozketa egin eta gero, hauek dira gure bulegora etorrita liburua jasoko duten irabazleak: Lurdes Gabilondo, Maite Redondo, Gabriel Mendizabal, Harkaitz Uranga, Maribel Agirre, Faustina Agirre, M. Rosario Etxeberria, Juan Antonio Beristain, Jone Iparragirre, Lurdes Arregi, M. del Mar Gutierrez, Luis Padrones.

**AZOKA****Iragarkietarako txokoa**

Zerbait saldu edo erosi, oparitu, lan eskaintzak, etxea alokatu... nahi baduzu, KARKARAN duzu iragarkietarako txoko berri hau.

Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, doako zerbitzua baita gurea.

**ALOKAIRUA**

■ Edozein negozio zabaltzeko lokal ezin aproposagoa alogagai Orion, Eusko Gudari kalearen erdi erdian. Informazio gehiago: 943 83 09 29 (Pilar)

**SALGAI**

■ Volkswagen California T4 salgai: 2000. urtekoa, 2,5 TDI motorra eta txuri kolorekoa. Ondo zainduta. Tf: 649 89 58 58 (Oidui Usabiaga)  
■ Dragon Invacare markako gurpildun aulki elektrikoa eta ranpak salgai, berri-berria. Prezioa: 3.000 euro.

Tel: 943 83 27 63.

■ Egoera onean dagoen Volkswagen Golf autoa salgai, 1991. urtekoa. Tf: 630 77 88 07.

■ Sagarminak (makatz basatiak) saltzen dira. Tf: 662 390 838. Felix.

■ Mercedes *Class E* autoa salgai. 2003. urtekoa, 89.000 km eta ondo zaindutakoa. Tf: 647 10 16 46.

**LAN ESKAINTZAK**

■ Ingeleseko klaseak esperientzia handiko irakasle tituludunaren eskutik: banaka edo talde txikitik. Tf: 610 76 28 37 (Imanol).

■ Montaje eta ajuste mekanikoan aritutako langilea behar dugu. 669 01 43 49.

**GALDUTAKOAK**

■ Bi urteko neskato baten galtza bakeroak galdu nituen irailaren 24an. Plastikozko zorro transparente batean zeuden eta frontoiaren eta Blink tabernaren artean aulki azpitik erori zitzaidalakoan nago. Aurkitzen duenak, dei dezala, arren, 943 89 05 72 zenbakira. Asko eskertuko diot.



**Negu honetan,  
ahaztu hotza.**

ESKANTZA  
PROMOIOA

## Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoliz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzailerekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskalari ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:  
**3.300€**  
(BEZ kanpor).

+

**KREDIGAS**  
finantziazio berezia,  
instalazioa hileko kuota erosotan  
finantzatzeko

+

**570€**  
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berrak honen interes-tasa 2006rako %3,25ekoa izango da (Credigasi). Gureko tarifa baduzu, edo 63 urter gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; haldarik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa guri garatzen diona da, baina instalazio egiteko, kondentazio-galdara (markaren arabera) eta 4 errodiator (45 elementu) jartzeak. Promozio estandarrean gaurko edozein ordutako, aparteko aurrerantze izango da. Promozio horiaz baliatuko, Naturgas Energia Comerciálizadora, SA. Inon hornikuntza ala egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina  
[www.naturgasenergia.com](http://www.naturgasenergia.com)



**naturgas  
energia**